

Egoera ekonomikoa eta Merkatuak ASTEKO LABURPENA

2020ko urtarrilaren 20tik 24rako astea


➤ **INGURU MAKROA:**

- ❖ ASTEKO DATUEN PODIUMA
- ❖ KASU DATORREN ASTEAN GAI HAUEI...

➤ **ASTE HONETAN MERKATUETAN**

ASTEKO DATUEN PODIUMA

UROPA: ZEW



Datuaren analisia


alemaniako inbertitzaileen konfiantzak espero baino askoz gehiago egin du hobera urtarrean, ikusi ahalago tentsio komertzialek ez diotela eragingo Europako ekonomia nagusiari hasiera batean uste bain bezainbeste, ZEWk egindako inkesta baten arabera. Analisi ekonomikoaren institutu alemaniarraren arabera, inbertitzaileen konfiantza ekonomikoa 26,7ra igo da; hazkunde nabarmena erabazduko 10,7ko datuarekin alderatuz gero. 15,5era igotzea aurreikusten zen. Bestetik, ekonomia gaur egungo egoerari buruz inbertitzaileek egindako ebaluazioa neurtzen duen beste indize batek -9,5era egin du hobera, joan den hileko -19,9aren aldean. Kasu horretan, analistek 3,5eko irakurketa aurreikusi zuten. ZEWko presidentek adierazi du inbertitzaileak baikor iraztearen arrazoi nagusia Estatu Batuen eta Txinaren arteko gatazka komertzialak berriki izan diren hobekuntza izan dela.

Adierazlearen azalpena

alemaniako Sentimendu Ekonomikoaren ZEW indizea Alemaniako ekonomia epe ertaineko indizearen adierazle bat da. Une jakin batean dagoen "sentimendu ekonomikoa" islatzeko balio du. Indizea argitaratzen du ZEW Institutuak. Europa osoko finantza-adituei egindako inkesta baten bidez oinarritzen da. Alemaniako ekonomia hurrengo sei hileetako aurreikuspenei buruz indizea indize zaie adituei.

ASTEKO DATUEN PODIUMA

UROPA: PMIak



Datuaren analisisia

Irrogueneko PMI konposatuaren atariko datuak abenduak 50,9 puntuak errepikatu ditu urtarrilean. Zerbitzuen sektorearen kasuan, datua 52,2ra jaitsi da abenduak 52,8 puntuetatik, bi hilabetetan izan den irakurketarik txarrena; manufakturen datua, berriz, 47,8ra igo da 46,3 puntuetatik, bederatzi abetetan izan duen mailarik altuenera. Herrialdeka, badirudi Alemaniak behea jo duela. Izan ere, herrialdeko indize konposatua 51,1 puntutara igo da, bost hiletan izan duen irakurketarik onena. Izan ere, zerbitzuen sektoreak aurreko hileko 52,9tik 54,2 puntuetara egin du gora, eta manufakturenak 47,8 puntuetatik 45,2ra. Frantziako PMI konposatua, bestalde, 51,5 puntutara jaitsi da urtarrilean, bost hiletan izan zuen emaitzarik txarrena, herrialdeko grebek eraginda. Zerbitzuen sektorearen kasuan, indizea 52,4 puntuetatik 51,7ra jaitsi da, lau hiletan izan duen irakurketarik txarrena. Manufakturen datua, berriz, azken bi hiletako maximora igo da, 51 puntutara, abenduak 50,4 puntuetatik.

Adierazlearen azalpena

Al Manufaktura/Zerbitzuak indizeak hileroko erorketen profesionalei eta enpresetako exekutiboek manufaktura-sektorearen egoerari buruz egiten zaien inkesta bat du oinarri. Irrikazioaren/zerbitzuen sektorearen aldean ekonomiaren egoera zein den neurtzeko balio du. Ireriazle ekonomiko aurreratu bat da, hau da, beste adierazle batzuek etorkizunean izango duten alakaera aurreratzeko balio digu; kasu honetan, esate baterako, BPGd-arena. Emandako datuak etik gorakoa bada, ekonomia hazten ari dela esan nahi du; hortik beherakoa bada, ordea, ekonomia uzkuertzen ari den seinale.

ASTEKO DATUEN PODIUMA

UROPA: EBZ



Datuaren analisisia


2020ko EBZren lehenengo bileran ez zen interes-tasen tasa ofiziala aldatu, 2016tik % 0an iltzatuta egoena, eta gordailu-erraztasunean ere ez zen inolako aldaketarik egin (-% 0,5). Azaroaren 1ean 3Zk berriz abiarazitako zorraren erosketak ere bere horretan mantenduko dira (hilean 20.000 milioi euro Euroguneko zor publikoaren eta pribatuaren erosketetan). Cristine Lagarde EBZko presidentea egungo politika eta helburu estrategiari eutsiko badio ere, erakundearen politika ekonomikoaren estrategia berrikusten hasiko da hilabete honetan. Estrategia horretan, EBZren helburu nagusia (inflazioa % 2tik gertu baina azpitik mantentzea) birdefinitzeaz gain, beste hainbat helburu barne hartuko ditu: aldaketa teknologikoak, klima-aldaketa, berdintasun-kontuak eta txanpon digitala. Presidenteak nabarmendu duenez, EBZk espero du epe motzean hazkundea aurreko urteetakoaren antzekoa izatea. Halaber, adierazi du hazkunde ekonomikoaren gainera riskuek apur bat behera egin dutela, nahiz eta jaitziera ez den oso nabarmena izan. Edonola ere, antziaz nabarmendu du EBZ prest dagoela beharrezko doikuntzak egiteko.

Adierazlearen azalpena

Europako Banku Zentrala Euroguneko 19 estatu kideen diru-politika kudeatzeaz arduratzen den erakundea da. 1998an eratu zen Amsterdameko Tratatuaren ondorioz, eta Alemanian dauka egoitza. Gaur egun Mario Draghi da haren buru, Italiako Bankuaren gobernadore ohia. EBZren eta Euroguneko diru-politikako batzordearen helburu nagusia euroguneko prezioen egonkortasunari eustea da. Euroguneko sistemak Erkidegoaren politika ekonomikoak ere bultzatu beharko ditu, haren helburuak bete behar izan laguntzeko. Horretarako, ezinbestekoa da enplegu-maila altu eta hazkunde iraunkor ez-lazionista bati eustea.

ASTEKO DATUEN PODIUMA

RRESUMA BATUA: PMIak



Datuaren analisisia


resuma Batuan, manufaktura eta zerbitzuen PMlen atariko datuak nabarmen egin dute gora tarrilean. Manufaktura-sektoreko erosketen kudeatzaileen jardura-maila neurtzen duen osketen Buruen Indizea (PMI) 49,8an kokatu da, aurreikusitakoa baino askoz gorago. Izan ere, enduko 47,5etik 47,6ra igotzea espero baitzen. Zerbitzuen PMlari dagokienez, urtarrilean berriro tu du uzkurduatik bereizten duen maila gairiditza, eta 52,9ra igo da abenduko 50etik, 49,4ko aila aurreikusten zenean.

Adierazlearen azalpena

II Manufaktura/Zerbitzuak indizeak hilero erosketen profesionalei eta enpresetako exekutiboiei anufaktura-sektorearen egoerari buruz egiten zaien inkesta bat du oinarri. brikazioaren/zerbitzuen sektorearen aldean ekonomiaren egoera zein den neurtzeko balio du. llerazle ekonomiko aurreratu bat da, hau da, beste adierazle batzuek etorkizunean izango duten akaera aurreratzeko balio digu; kasu honetan, esate baterako, BPGd-arena. Emandako datua etik gorakoa bada, ekonomia hazten ari dela esan nahi du; hortik beherakoa bada, ordea, onomia uzkurduan ari den seinale.

ASTEKO DATUEN PODIUMA

EB: BIGARREN ESKUKO ETXEBIZITZAK



Datuaren analisisia



xebizitza erabilien salmentak bi urtetako mailarik handienara igo ziren abenduan, hipoteka-tasa kiagoek higiezinaren merkatuari gora egiten lagundu ziotenaren froga ukaezina, 2018an izandako ulaldiaren ondoren. Prezioek gorantz egin zuten berriro, eta inbentarioak minimoetan mantendu zen, sektorea are gehiago sendotu zuena. Joan den hilean, etxebizitza erabilien salmentak 5,54 ilioi unitatera igo ziren urteko termino desestazionalizatuetan, mailarik handiena 2018ko otsailetik. Zaroko salmenten erritmoa 5,35 milioi unitatetan mantendu zen. Hala ere, abenduan salmentak % 3 igo zuten aurreikusita zegoen, 5,43 milioi unitateko erritmoan.

Adierazlearen azalpena

garren Eskuko Etxebizitzaren Salmenta-indizea hilerok argitaratzen da, eta hilean itxi diren salmenten %a neurtzen du, etxebizitzena, jabekidetzena eta bigarren eskuko kooperatibena. Bigarren eskuko etxebizitzaren proportzioa etxebizitza berriena baino handiagoa denez merkatuan, adierazle abigarri bat da higiezinaren sektorearen joerak zehazteko.

ASTEKO DATUEN PODIUMA

APONIA: KPI ETA PMIak



Datuaren analisisia

tarrilean, **PMI**aren datu onak izan ditugu **Japonian**. Zerbitzuen indizea eremu negatibotik irten da, a 52,1 puntutara heldu da urteko lehen hilabete honetan. Manufakturen PMI indizeak 49,3an naitu du hilabetea, eta, beraz, gero era hurbilago dago hedapena uzkurdueratik banatzen duen leko mailatik.

tarrileko KPIak espero baino gehiago egin du gora, BEZaren igoerak eta energiaren prezioen tsiera txikiagoak eraginda.

Adierazlearen azalpena

anufakturen/Zerbitzuen PMIak inkesta bat du oinarri, eta fabrikazioaren sektorearen aldean onomiaren egoera zein den neurtzeko balio du. Adierazle ekonomiko aurreratu bat da, eta randako datua 50etik gorakoa bada, ekonomia hazten ari dela esan nahi du; hortik beherakoa da, ordea, ekonomia uzkuritzen ari den seinale.

la hileru prestatzen da. Etxeek kontsumitzen dituzten oinarritzko zerbitzu eta ondasun multzoaren azioen mailaren bilakaera erakusten duen adierazlea da. Ez du produktuen prezioa adierazten, izik eta batez beste haien balioa zenbat handitu edo txikitu den, ehunekotan adierazita. Balioaren jaketak herrialdearen inflazioa zehaztuko du.

KASU DATORREN ASTEAN GAI HAUEI...

Data	Eremua	Adierazlea	Aurreik.
01/27	Alemania	IFO enpresen egoera	97.0
01/27	Alemania	IFO aukerak	94.8
01/27	Alemania	IFOren gaur egungo ebaluazioa	99.1
01/27	Estatu Batuak	Hileko etxebizitza berrien salmenta	% 1.5
01/27	Estatu Batuak	Manuf. jarduera Fed Dallas	-1.6
01/28	Espainia	Langabezia-tasa	% 13.95
01/28	Estatu Batuak	Ondasun iraunkorren aginduak	% 0.4
01/28	Estatu Batuak	Konf kontseiluaren kontsumitzailearen konfiantza	128.0
01/28	Estatu Batuak	Konf kontseiluaren espektatibak	--
01/28	Estatu Batuak	Konf kontseiluaren egoera	--
01/28	Estatu Batuak	Richmond manufakturen indizea	-3
01/29	Alemania	Kontsumitzailearen konfiantza GfK	9.6
01/29	Frantzia	Kontsumitzailearen konfiantza	102
01/29	Espainia	Urte arteko xehakako salmentak	--
01/29	Estatu Batuak	Egiteke dauden hileko etxebizitzaren salmentak	% 0.7
01/29	Estatu Batuak	Tasen erabakia Erreserba Federala	% 1.50
01/30	Eurogunea	Konfiantza ekonomikoa	101.8
01/30	Eurogunea	Kontsumitzailearen konfiantza	--
01/30	Eurogunea	Langabezia-tasa	% 7.5
01/30	Erresuma Batua	Banku-tasa Ingalaterrako Bankua	% 0.750
01/30	Alemania	Urte arteko KPIa	% 1.7
01/30	Estatu Batuak	Hiruhilekoko BPGd urtekotua	% 2.1
01/30	Estatu Batuak	Hasierako langabezia-eskaerak	215k
01/31	Japonia	Langabezia	% 2.3
01/31	Japonia	Urte arteko xehakako salmentak	-% 1.8
01/31	Japonia	Urte arteko industria-ekoizpena	-% 3.6
01/31	Erresuma Batua	Kontsumitzailearen konfiantza GfK	-9
01/31	Txina	PMI Composite	--
01/31	Txina	Fabrikazioaren PMIa	50.0
01/31	Txina	Ez fabrikazioaren PMIa	53.0
01/31	Frantzia	Urte arteko BPGd	% 1.2
01/31	Alemania	SA YoY xehakako salmentak	% 4.5
01/31	Frantzia	Urte arteko KPIa	% 1.5
01/31	Espainia	Urte arteko BPGd	% 1.7
01/31	Espainia	Urte arteko KPIa	% 1.0
01/31	Eurogunea	Urte arteko BPGd SA	% 1.1
01/31	Estatu Batuak	PMI Chicago MNI	48.9
01/31	Estatu Batuak	Pertzepzioa Mich. U.	99.1
01/31	Estatu Batuak	Oraingo egoera Mich. U.	--
01/31	Estatu Batuak	Aukerak Mich. U.	--

JRTSA:

itsiera orokorren astea munduko burtsa nagusietan. Txinan tektatutako «koronabirusak» piztutako osasun-alerta izan da reta-gunea; izan ere, gaitza giza kontaktuagatik hedatzen da, a dagoeneko 80 hildako baino gehiago eragin ditu. Txinako bernua kutsatzeak geldiarazteko neurriak hartzen ari da, ntuan hartuta, gainera, asteburu horretan hasten zirela rgiaren urte berriaren ospakizunak, ehunka milioi joan- rriekin. Osasunerako Mundu Erakundeak larrialditzat jo du us horren agerraldia, baina ez du nazioarteko izurrite egoera arri. Inbertitzaileek zuhur jokatu zuten gaitzaren hedapenak an ditzakeen ondorio ekonomiko eta sozialen aurrean, eta renta aldakorreko salmenten alde egin zuen. Gainerako gaiak jarren-mailan geratu ziren. Merkataritza-arloan, blokeak erkataritza akordiorik onartu ezean, EBko automobilen portazioei muga-zerga handiak ezartzeko mehatxua egin zuen umpek. Banku Zentralei dagokienez, EBZren lehenengo erak ez zuen ezer berririk ekarri, eta merkatuak «biguntzat» jo en Lagarde presidentearen hitzaldia. Inguru makroan, iropan konfiantza alemaniarraren adierazle ona izan genuen. iroguneko manufakturen PMLa duela 9 hiletako mailarik uenera igo zen, baina zerbitzuetakoa bi hiletan izandako kurketarik txarrenera jaitsi zen. AEBetan, erabilitako ebizitzen salmenten erregistroa positiboa izan zen, eta Alaren datuak, berriz, mistoak.

ERRENTA FINKOIA:

bertitzaileen tonu zuhurragoak zor subiranoaren erosketak statu zituen Atlantikoaren bi aldeetan, eta errentagarritasunen irtezea eragin zuen horrek. Europan, bund-ak -% 0,34an (-12 %) amaitu zuen astea, eta Espainiako bere homologoak % 35ean, bi herrialdeen arteko arrisku-prima 69 oinarritzko intutan kokatuz. Italian, Alemaniarekiko diferentziala -3 op tutu zen, nahiz eta presidenteorde eta 5 Izarren mugimenduko iruak bere alderdiko buru izateari uko egin, alderdi barruko sadostasunen eta hauteskundeetan izandako emaitza txarren idoren. Kreditu-diferentzialek pixka bat gora egin zuten.

BISAK / LEHENGAIK:

hurtzia hori babes-dibisa tradizionalagoen erosketan ere islatu n, yena eta dolarra kasu, maila erantsian gora egin zutenak. iZren diskurtso bigunxeagoak euroaren ahultasunari eragin n. Liberak, aldiz, indarra irabazi zuen, enpleguaren datu onak a enpresarien baikortasuna tarteko. Gainera, Ingalaterrako nkuak tasak jaisteko aurreikuspenak leundu zituen. hengaiei dagokienez, petrolioaren prezioa -% 7,93 jaitsi zen; onomiaren hazkundeari kalte eginez gero, Txinako arnas- usaren izurriteak erregai eskaria gutxitu dezakeen lduzagatik. Halaber, Libiako petrolio ekoizpenaren irrizketari garrantzia kendu zitzaion, beste iturri batzuen kaintza ugaria zelako.

INDIZEAK	PREZIOA	% Aldaketa Astean	Ald. % 2020
MSCI WORLD (Local)	1.836,62	-0,78	2,05
IBEX 35	9.562,00	-1,23	0,13
DJ EURO STOXX 50	3.779,16	-0,76	0,91
DJ STOXX 50	3.465,90	-0,33	1,85
FTSE	7.585,98	-1,15	0,58
S&P 500	3.295,47	-1,03	2,00
Dow Jones	28.989,73	-1,22	1,58
NASDAQ	9.314,91	-0,79	3,82
NIKKEI 225	23.827,18	-0,89	0,72
MSCI GORAKORRAK (Tokioa)	62.053,20	-2,14	0,95
MEXBOL	45.141,62	-1,48	3,68
BOVESPA	118.376,40	-0,09	2,36
SHANGHAI	3.118,92	-3,22	-2,41
Errusia Rts Mosku	1.599,82	-2,32	3,29

Gobernuen tasak	Maila	Aldaketa astean	Ald. 2020
ALEMANIA 2 URTE	-0,61	-0,02	-0,01
ESPAINIA 2 URTE	-0,38	-0,03	0,01
AEB 2 URTE	1,49	-0,06	-0,07
ALEMANIA 10 URTE	-0,34	-0,12	-0,15
ESPAINIA 10 URTE	0,35	-0,12	-0,12
AEB 10 URTE	1,68	-0,14	-0,23
ALEMANIA 30 URTE	0,19	-0,12	-0,16
ESPAINIA 30 URTE	1,25	-0,14	-0,07
AEB 30 URTE	2,13	-0,15	-0,26
Kreditu-spreada (op)			
MARKIT ITRX EUROPE 12/24	44,62	1,87	0,56
MARKIT ITRX EUR XOVER 12/24	218,95	11,78	12,58

Dibisak	Maila	% Aldaketa astean	% Ald. 2019
Dolarra / Euroa	1,10	-0,60	-1,69
Yena / Euroa	120,49	-1,37	-0,99
Libera / Euroa	0,84	-1,18	-0,43

Lehengaiak	Maila	% Aldaketa astean	% Ald 2020
Petrolio (Brendt)	60,01	-7,93	-9,65
Urrea	1.571,53	0,92	3,58

Kutxabank Gestión SGIIC SAUk prestatu du agiri hau, eta horretarako, fidagarriak diren informazio-iturriak erabili ditu. Hala ere, ezin du ziurtatu bertan jasotako informazioa eta iritziak erabat zehatzak, zuzenak eta osoak direnik, eta ez du bere gain hartzen horren gaineko inolako erantzukizunik. Agiri honetan agertzen diren informazio eta iritziak edonoiz aldatu daitezke, aurretik horren berri eman beharrik gabe. Kutxabank Gestión SGIIC SAUk ez du agiri honen eta bere edukien erabilerak sortu ditzakeen kalteen gaineko erantzukizunik hartzen. Finantza-merkatuetan eragiketak egiteak arrisku handiak sortu ditzake, eta posizioa etengabe zaindu behar da. Txosten hau ez da eskaintza bat ez eta finantza-aktiboak erosi edo saltzeko eskaera bat ere. Agiri hau zu informatzeko besterik ez da, eta hirugarrenek ezin dute berregin edo banatu. Era berean, ezin da, inolako aitzakiapean, osorik edo zati bat argitaratu.